

# IZKIRIMIRIAK

*Lenengoko egazkada.*—Egazkiña lurra itxi ta goratu danekoxe, lenengoz egan dagian andra batek azafatagana biurtu ta diñotso: —Andereño, zenbat metrora egaz dagigu? An becan gizonak ikusten dodaz, txiñurri antzeko. —Ez ha, andra; iru metrora goi egaz daigu oindiño, ta arek txiñurriak dozuz.

*Adiñez nagusi.*—Egia jakin nairik, txiñurriak aitari: —Esaidazu, aita, gura dodana egiteko noiz izango naz naiko andi?

Pitin baten ixillik eta aitak darantzutso: —Ez dakit, seme; iñor be ezta bizi izan ainbeste denpora.

*Euli bat.*—Gizona, ardangela batera joan da. Baso bete esne eskatu dau. Ekarri dautsoe. Esnetan euli bat dago.

Bar-zaiñari dei egin ta dirautso: —Entzuizu, lagun, ekarstazu urrengoan esnea baso baten eta eulia bestean. Nastu nei ba'ditut, neuk egingo dot.

*Ume argiak.*—Amak diño: —Baiña, Xabierto, zergaitik ez dautsozu mosu bat emon gura Karmele andereñoari?

—Kontuz ibilli bear dodalako; bestelan, zaplada ederra emongo leuskit, atzo aitari luzetu eutson antzekoa.

*Arrisku barik.*—Aitak: —Gazte, zatorkidaz noizik bein ikustera.

—Bearrez estu nabil, eta asti gitxi dot orretarako.

Zatoz, gizon; zatoz, bildur barik. Nire alaba guztiak senargei dun dira.

*Eroan eziña.*—Urlia etxetan ez dabe ondo alkar artzen andra-gizonak. Bazkalostean, asarre bizitan sartu dira oi lez, eta andreak gizonari: —Eta ilten azanean inpernura ba'oa, milla bider obeto.

—Txaldana, ez adi orren arduraz bizi. An be, neure etxean lez egongo nintzaken.

*Azalpena.*—Mozkorti batek: Egiz diñoat, urak orditu nok.

—Zelan urak?

—Bai; euri zaparrada asi zoan, eta andik iges egitearren, trabenan sartu ni.

*Inpernua etxean.*—Alabeak amari: —Ez, ama; erabagi sendoa artu dot aregaz ez ezkontzeko; ez dot nai, ezelan be.

—Zer jazo yatzue, ba?

—Begira: esan daustienez, Jaungoikoa dagoanik ez dau siñisten; ezta inpernurik be, ez ei dago.

—Ez egizu aintzat artu olakorik, alaba, ta ezkondu zaite. Ikusiko dozu, bion artean zelan erakusten dautsagun oker dabilleta.

*Izar-jakintza saltzen.*—Bere burua jakintzat eukon gazte batek, zarrago bati onela iñotsan egun lainotsu baten: Ikusten al dozuz an, mendian, odei andi areik?

—Bai, gazte.

—Olango odeiak, ba, zapatuz ikusten dozuzan guztietan ... urrengo eguna domeka dozu.

*Ikusmena.*—Taxi batek, besteari, topeka da ederra emon dautso.

—Zer dok au? —ots bigarrenko txoperrak—. Itsu al ago?

—Itsu, ta motorraren erdi-erdian jo au?

*Zenbaketa berezia.*—Goi-erortzailleen eskolan saio bat egitera doaz. Ikasleetako batek erakusleari itanduten dautso:

—Noiz arte... arte... zenbat... zenbatu... bear... ditut... tresna... au... zabaltzeko?

—Ik? —dirautso erakusleak—. Iruraino.

*Bigarrena.*—Andra batek bere lagunari: —Ezkontza ori, itzetik ortzerako maitezkoa izan ete zonan?

—Ez, bigarrenekoa, maite. Lenengo aldir senarrak emaztea ikusi ebanean, ez ei ekian neska gazte a milloi askoren jaube zoenik.

*Ikasle argi bat.*—Ume batek, futbol-jokua kalean amaitu ta bere-liburu pardeltxoan besapen dabela botikan sarturik, min-aringarri bat eskatzen dau.

—Baretzat dok, mutiko? —itandu eutson botika— zaiñak.

—Bai, jauna.

—Nun dok min?

—Oraindik ez dakit, ba; aitak ez daustaz oindiño eskolako notak ikusi.

*Itzaldiak.*—Kalean zear joiazan jakitun bi ta batek besteari:

—Atzo egin zenduan itzaldi bitartean, an ziran entzuleak sarritxo begiratzen ebezan euren erlojuak.

—Igarotako astean zuk egin zenduanean, barriz, ez begiratu bakarrik, astindu be egiten ebezan.

*Bizkargi*